



Beasaingo Udala

ESP. KODEA. 2024HIME0002	
ESPEDIENTEA	HITZARMENAK: MERKATARITZA
TITULARRA	Irazustabarrena Bidegain Mari Jose
TOKIA	BEASAIN

BEASAINGO UDALAREN ETA BAREAK BEASAINGO MERKATARI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ESKUALDEKO MERKATARITZA BULEGOAREN DIRU LAGUNTZA NOMINATIBOA JASOTZEKO

Beasainen, 2024ko apirilaren 27an

-

HONAKOAK BATZARTUTA:

Alde batetik, Leire Artola Ugalde andrea, Beasaingo Udaleko Alkate-Presidentea, 35779121E NAN zenbakiduna, BEASAINGO UDALAREN ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin Plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena.

Bestalde, Bareak Beasaingo Merkatarik Elkartea, G20843868 zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Zaldizurreta kalean 5 helbidean, egintza honetan Mari Jose Irazustabarrena Bidegain andreak ordezkaturik, adinez nagusia dena, 15972628W NAN zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Beasainen duena eta ordezkari 2017ko ekainaren 27ko datako Batzar Orokorraren bileran burututako ahalmenen eskuordetzearen arabera jarduten duena.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakundearen izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

- I) Espainiako Konstituzioak 43.3 artikuluan adierazten du botere publikoek herritarren bizi baldintzak hobetzeko ekintzak sustatuko dituztela.
- II) 38/2003 Legeak, dirulaguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundearen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.



Beasaingo Udala

- III) 38/2003 Legeak, dirulaguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.
- IV) Beasaingo Udaleko 2024rako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da Bareak Beasaingo Merkataritza Elkartearen alde, merkataritza eta ostalaritza sustatu eta indartzearen helburuarekin.
- V) Bareak Beasaingo Merkataritza Elkartearen Eskualdeko Merkataritza bulegoak garatzen dituen jarduerak eta dirulaguntza honen xede direnak Beasaingo Udalaren diru laguntzak emateko eskumen alorren barne daude, Beasaingo udalerrian merkataritza eta ostalaritza sustatzea eta indartzea helburua duen proiektua baita eta, ondorioz, udalari dagokion eskumena da, honakoetan xedatutakoaren arabera: 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25.2.i) artikuluan xedatutakoa; 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.34) artikuluan xedatutakoa; Beasaingo Udaleko 2021erako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean xedatutakoa; eta 2022-2025 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa, Alkatetzaren 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Ebazpen bidez onartu zena, "UDALERRIKO MERKATARITZA SEKTOREA BULTZATZEA helburu estrategiko gisa ezarrita eta, hartara, diru laguntza hau 6. ildoaren 6.2. jarduketan barne hartuta.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Beasaingo Bareak Merkataritza Elkarteari 6.104,70 euroko dirulaguntza nominatiboa ematea elkarte honek merkataritza sustatzeko Eskualdeko Merkataritza bulegoaren bidez. Helburu hori lortzeko Udalak dirulaguntza emango dio alde batetik, jarraian adierazitako jarduerak garatzeko:

- Eskualdeko merkataritza elkarrekin laguntza: elkarrekin kudeaketa, dinamizazio-kanpainak antolatzea, prestakuntzak antolatzea, dirulaguntzak bideratzea...
- Sektorearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko bitartekaritza. Eusko Jaurlaritzaren kanpainak, prestakuntzak, ekimenak... abian jartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Sailaren izapideak egitea
- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren laguntzak bideratzea.
- Merkataritza kontsultak erantzutea



Beasaingo Udala

Aipatutako jardueren egikaritzeak suposatuko duen aurreikusitako gastu osoa hitzarmen honen xede den diru-laguntzaren zenbateko osoaren gainetik dago, idatzi honen eranskin modura atxikitzen den aurrekontuan ikus daitekeen bezalaxe.

BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalaren betebeharrak dira:

Adostutako zenbatekoa duen diru laguntzaren ordainketa burutzea BAREAK Beasaingo Merkatarien Elkartearen alde, hitzarmena sinatu ondoren, Hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

BAREAK Beasaingo Merkatarien Elkartearen betebeharrak dira:

- 1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- 2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- 3) Udal organo eskudunak edo udal kontu hartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.
- 4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.
- 5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.
- 6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.
- 7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.
- 8) Dirulaguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.
- 9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.
- 10) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.
- 11) Elkartek euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan. Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.



Beasaingo Udala

12) Elkarateak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, aurrekoa aldatzen duena) bai elkaratearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, BAREAK Beasaingo Merkatarien Elkaratearen aldeko dirulaguntza nominatibo gisa, 6.104,70 euro ordainduko ditu, jarraian adierazitako moduan:

- 3.000 euroko zenbatekoa ordaindu egingo da, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean baditu.
- Hitzarmena sinatzean baimena emango da, eskatzaileak berariaz kontrakoa adierazi ezean, Beasaingo Udalak zuzenean egiazta dezan eskatzaileak zerga-betebeharrak Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela. Udalak automatikoki egiaztatuko du hori, behar beste aldiz, eta horretarako, ez du eskatzaileen baimenik beharko, Errege dekretuaren 22.artikuluaren ezarritakoaren arabera. 887/2006 Legea, uztailaren 21ekoa, Diru-Laguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duena aplikatuz.



Elkarateak egiaztapenari uko egiten dio. Uko eginez gero, elkarateak berak aurkeztu beharko ditu goian aipatutako dokumentuak.

- Dirulaguntzaren azken ordainketa burutuko da onuradunaren justifikazioa jaso ondoren, diru laguntzaren xede zen jarduera, proiektua, helburua edo ezarpena gauzatu izana egiaztatzen duena, jarraian adierazitako dokumentazioaren bitartez:
 - Burututako jardueren laburpen txostena.
 - Eskualdeko merkataritza teknikariaren nominak
 - Langileen erlazio nominala
 - 110T-a
 - 5.-PFEZen ordainketa agiriak



Beasaingo Udala

Hitzarmenaren xede den dirulaguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den dirulaguntza 2024 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0243.481.430.00.02 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekariguak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialetakako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.
- f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.

BOSGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuko emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundeetakoak badira ere. Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

SEIGARRENA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.



Beasaingo Udala

Ezarritako baldintzak bete izanaren eta emakidan aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa dokumentatu egingo da justifikatzeko kontu emate baten bitartez. Kontu emate hori onuradunaren derrigorrezko egintza izango da eta barne hartu beharko ditu, deklaratzaileraren erantzukizunpean, diru laguntzaren helburua bete dela egiaztatzea ahalbidetzen duten gastu egiaztagiria edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikatzeko kontu ematea burutu beharko da 2025eko urtarrilaren 30eko data baino lehen, Udalaren aurrean aurkeztuta emandako dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko dokumentazio hau:

- 1.- Burututako jardueren laburpen txostena.
- 2.- Eskualdeko merkataritzako teknikariaren nominak
- 3.-Balantzea
- 4.-110T- Lan etekinaren atxikipenak
- 5.-PFEZen ordainketa agiriak

ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK.

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetiko ordezkari batekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

ZORTZIGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK.

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.



Beasaingo Udala

Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak bete ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2024ko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzeazina ezarrita.

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA.

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta BAREAK Beasaingo Merkataritza Elkartea 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea indarrean sartu ondoren, eta haren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia ez da izango 4 urtetik gorakoa, alderdiek aho batez luzapen bat edo gehiago adosteko aukera kaltetu gabe, gehienez ere lau urtetan zehar hasierako epea amaitu zenetik.



Beasaingo Udala

Hitzarmen honek legezko xedapen hau betetzen du, sinatu zenetik 2024ko abenduaren 31ra bitarteko indarraldia baitu. Hitzarmenak ez du luzapenik onartzen.

HAMABIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.

Hau izango da legeria aplikagarria:

- Udalaren Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren 2023ko abenduaren 18ko Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa, 2020-2022 aldirakoa, 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Alkatetza Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Beasaingo Udaleko diru laguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.

HAMAHIRUGARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

BAREAK Beasaingo Merkataritza Elkartek hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, bai-



Beasaingo Udala

na haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.

BAREAK Beasaingo Merkatarik Elkartek hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

HAMALAGARRENA. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA.

Diru Laguntzen Lege Orokorren Erregelamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreraren zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduerak, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

HAMABOSGARRENA. GATAZKAK EBAZTEA.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau izenpetu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

BEASAINGO UDALA

BAREAK Beasaingo Merkatarik Elkartea



EKS | CSV: ESKU8458106f-073a-4b6f-91e3-4ef545307cc8

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>